Aunque el GV ha manifestado que su prioridad será el mantenimiento de servicios básicos como la sanidad, la educación o la protección de los más necesitados, todos y cada uno de ellos experimentarán recortes (salud se recorta 4,9 puntos del PIB desde 2009; educación, 3,6 puntos; vivienda, 0,1, y el gasto en inclusión social, 0,5 puntos del PIB).

La alternativa a unos presupuestos cuya principal característica es el recorte pasa por un cambio en la fiscalidad, y éste pasa por aumentar los ingresos públicos. De destinar el mismo porcentaje del PIB que la media de la Unión Europea al cobro de impuestos y cotizaciones sociales, en la CAPV se recaudarían al año 4.400 millones de euros más, lo que permitiría aumentar el gasto del GV en un 50%. Si en Europa es posible, aquí también lo es.



KRONIKA DE LA A LA Z



› GORKA QUEVEDO

Erreparatu goiko irudia. Batetik izugarri aberatsa den klase bat, kasta bat. Kopuru absolutuetan gutxi, baina izugarri boteretsuak. Eurek agintzen dute, eta horretarako tokian-tokiko klase-politikoaz baliatzen dira. Bestaldean, gainontzekook. Kasta pribilegiatu hori kenduta, beste guztiok. Eurak gure bizkarretik bizi dira, euren morroi bilakatu gaituzte. Baina, posible al da kontakizun hau atzera botatzea? Bai noski! Kalera atera, mobilizatu eta langile-klasearen eskubi-deen alde borrokatzen badugu ez izan zalantzarik lortuko dugula. Etenik ez duen prozesu honetan ezinbesteko hitzordua dugu maiatzaren 30an. Gora Greba Orokorra!

A › Aurrekontuak: Lehendakari denetik Urkulluk aurkezten dituen lehen aurrekontuak etsigarriak dira. 1.250 milioi eurotako murrizketa jasotzen du, dagoneko urtez-urte hainbat murrizketa izan dituzten aurrekontu batzuetan. Urkulluk jakin beharko luke bestelako aurrekontu batzuk ezinbestekoak izateaz gain posible direla. Horretarako aski luke diru sarrerak gehitzea. Eta hori posible da, besteak beste, bidezko zerga-sistema bat izanda. Au-

rekontuak ez dira gertakari natural bat, erabaki politiko batzuen ondorio dira.

B › Bozketa: Lehenengo aldiz Frantziako Estatuak bertako barne antolamenduaren inguruan galdegin die herritarrei. Apirilaren 7an izan zen; Alsaziako herritarrek Lurralde elkargo bakarra sortzeko aukerari buruz bozkatu behar izan zuten. Erreferentzia izan liteke aurrekari hau Ipar Euskal Herrirako eta bertako milaka herritarren Departamentu propioaren eskaerarako?

C › Chavez: Martxoaren 5ean Venezuelako presidente Hugo Chavez Frias zendu zen, minbiziak jota. Hego Amerikak inperialismo politiko eta ekonomikoaren aurka daraman borrokaren ezinbesteko erreferentzia. Bestelako mundu bat posible dela uste eta horren alde borrokatu zuten politikaria. Horregatik zituen horrenbeste etsai, eta horren boteretsuak. Haren heriotza eta gero apirilaren 14ean egindako hauteskundeetan Nikolas Maduro buru

koalizioak lortu zuen garaipena. Chavez joan da, baina chavismoa bizirik dago.

D › Dietak: Nafarroako Gobernuako presidente ohi Miguel Sanzek eta Iruñeko alkate Enrique Mayak epailearen aurrean deklaratu behar izan zuten inputatu gisa Nafarroako Aurrezki Kutxako bileretan parte-hartzeagatik jaso zituzten dieten harira. Miguel Sanz -UPN- azken urteetan ustelkeriarekin lotutako gai batengatik inputatu gisa deklaritzen duen Nafarroako laugarren presidentea da. Lehenago Gabriel Urralburu -PSN-, Javier Otano -PSN- eta Jaime Ignacio del Burgo -PP- igaro ziren epailearen aurretik. Egungo presidentea Yolanda Barcinak ere jaso zituen dietak, baina foruduna da eta epaileak oraindik ez du inputatu; egingo balu auzia automatikoki Auzitegi Gorenera eramango lukete. Ustelkeria kiratsa izugarria da...

E › Escrache: Argentinan sortu zuten protesta mota hau diktaduran desagertutako eta hildakoen senideen elkarteek. Helburua zigortu gabeko diktaduraren agintariak non bizi ziren seinalatzea zen, eta 'escrache' izena jarri zioten. Orain, etxe kaleratzean aurkako hainbat elkarteek protesta mota hau hartu dute, etxe kaleratzeak posible egiten dituzten politikariak salatu asmoz. Protesta baketsua, demokratikoa eta bidezkoa, herritarren kontrako

La movilización social es el único modo de revertir la actual coyuntura social y económica

Margaret Thatcher ha muerto, pero sus ideas continúan vivas y dominando la política europea

politikak egiten dituztenak salatzenak helburua duena. Horregatik kriminalizatu nahi dute kapitalaren diktadura inposatzen diguten horiek.

F › Faxismoa: Europa osoan gorakada nabarmena izaten ari dira eskuin muturreko alderdi eta mugimenduak. Zenbait herrialdetan, gainera, ideia neonaziak dituzten alderdi politikoak gorpuzten ari dira. Egoera honen aurrean, hainbat elkarrek Mugimendu Antifaxista Europar bateratua, demokratikoa eta herrian sustraitua eratzeko deialdia egin dute. ELAK bat egin du ekimenarekin. Sinatu nahi duen orok hemen du aukera: antifas-cism.europa@gmail.com.

G › Galdera: Kataluniako prozesu soberanista urrats berriak ematen ari da. Hala, hainbat hedabidek aurreratu dute, bere etorkizunari buruzko galdeketa 2014ko maiatzaren 25ean izango litzateke. Galdera, berriz, honakoa: "Uste duzu Kataluniak estatu independente izan beharko lukeela?"

H › Haurreskolak: Pues eso. Ke el Parlamento basko a aprobado kon los botos de PNV, PP y UPD una emmienda para apoiar el uso de las 2 lenguas oficiales -el castellano y la otra lengua rara esa- en el proyecto linwistiko del consorcio de Haurreskolas para ke los niños y niñas hablen más castellano ke si no luego no savran hablar y eskribir bien en la lengua komun, es decir, en castellano batua y eso no es gueno.

I › Itxiera: Otsailaren 20an hamar urte bete ziren Espainiako Guardia Zibilak armaraz *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Urtemuga horretatik gutxira zorigaiztoko beste albiste baten berri izan genuen: Joxean Lizarribarren heriotza. *Berria*-ren sorrerarekin batera hartu zuen Berria Taldeko presidente kargua; aurretik *Euskaldunon Egunkaria*-ko administrazio kontseiluko kide izan zen. Besarkada bat Joxeanen senide eta lagunei.

J › Jendetza: Bilbon batu zena martxoaren 16an bestelako politika sozial eta ekonomikoaren alde, hainbat sindikatu eta gizarte eragilek deituta. Soilik agintari politikoek kalearen presioa nabaritzen badute posible izango da bestelako politika sozial eta ekonomikoak lortzea. Hurrengo hilabeteetan ere izango dugu gure haserre agertzeko aukera. Esaterako, Maiatzaren Lehena.

K › Kartzela: 192/2006 doktrina ez dela onargarria esan zion Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiari 2012ko uztailean. Helegitea jarri eta gero Auzitegiak errekurtsioa aztertu zuen mar-

txoan. Bestalde, apirilaren hasieran Xabier Lopez Peña preso hil zen Frantziako kartzela batean, buruan isuri bat izan eta behar bezalako arretoa ukatu ostean. Bi gertakari ilun hauek Espainiako eta Frantziako estatuen kartzela politika primeran islatzen duten bi kasu dira.

L › Langabezia: Hilabetez hilabete klasiko bat da, baina langabeziak marka guztiak hausten ari da. Egoeraren larritasuna begi-bistakoa da. Horregatik komeni da behar adina aldiz aipatzea.

M › Margaret: Apirilaren 8an Erresuma Batuko lehen ministro izandako Margaret Thatcher hil zen. Zoritxarrez, bere ideiek bizi bizirik jarraitzen dute. Egungo lehen ministro David Cameron horren adibide da. Bere aurrekariak hasitako lana amaitzetik gertu du, gizarte-babes neurri oro erabat suntsizetik gertu dago. Thatcher hil da, bere doktrinak bizirik darrai.

N › Neruda: 1973ko irailaren 23an, Ameriketako Estatu Batuen babesarekin Augusto Pinochetek Salvador Allenderen aurka emandako estatu kolpea eta hamabi egunetara, Pablo Neruda poeta hil zen. Bertsio ofizialak minbiziaren ondorioz hil zela aipatu zuen. Hala ere, beti egon dira zalantzak bere heriotzaren arrazoien inguruan. Orain, Nerudaren arrastoak hobitiki atera dituzte, zer gertatu zen jakiteko esperantzaz. Ea 40 urteren ostean askatasunaren eta justizia sozialaren alde borrokatu zuen poeta handi honekin gertatu zena- ren inguruko egia jakiterik dugun.

O › Otorduak: Nafarroako Ospitale- tako janariaren pribatizazioa eta izan zitza- keen ondorio kaltegarriak salatu izan ditu- gu. Berriki jakin den albiste batek, ordea, muga guztiak gainditu ditu: martxoaren amaieran gaixo bat zendu zen Listeriaren erruz, janarietan egon ohi den bakteria. Heriotza ospitalean jandako janari baten ondorio balitz, osasungintza sektorean ematen ari diren pribatizazioen biktima berri baten aurrean geundeke.

P › Pentsioak: Espainiako Gobernu- a pentsioen erreforma berria prestatzen ari da. Apurka-apurka gero eta gaiza gehi- ago dakizkigu: Bruselako presioa sartzen ari da lehenbailehen aurrera ateratzen -ziur- renik apirila amaitu baino lehen-, erretiroa hartzea izugarri zailduko du -gehiago oraindik-, erretiroa hartzeko baldintzak are eta gogorragoak izango dira, Gobernuak lege proiektu gisa onartuko du...

S › Sententzia: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi du herritarrak etxetik kaleratzea ahalbidetzen zuen Espainiako hipoteken legeak ez zuela Europako arauekin bat egiten. Sententziaren arabera, lege horrek kontsumitzaileen eskubideak urratzen zituen. Orain ikusteke dago Espainiako Gobernuak nola erantzuten dion epai honi.

T › Traba: Londresek ez dio trabarik jarriko Eskoziari estatu berri gisa eratzeko baiezkoko irabazten badu. Hala iragarri du Erresuma Batuko presidente David Came-

Miguel Sanz ha sido el cuarto ex presidente de Navarra imputado por algún caso de corrupción

ronen. Apirilean Moncloara joan eta Rajoy- rekin batzartu zenean gaiaren inguruan galdegin zioten azken honi. "Eskoziako eta Kataluniako kasuak ezberdinak dira". Espainiako eta Erresuma Batuko jarrerak ezberdinak dira, falta da gehitzea.

U › Urtemuga: Apirilaren 9an Iñigo Cabacas gaztearen heriotzaren lehen urtemuga bete zen. Berriki jakin diren albisteek -Gara egunkariak egun horretan Ertzaintzaren mandoek emandako agin- duen audioa argitaratu du- are eta larri- goa -posible bada- egiten dute egun horretan gertatuko. Inolako istilurik ez zela jakitun izan arren, zera esan zuen operazio arduradunak: "Ea, ba, aginduak errepika- tuko ditut garbi gera daitezke. Orainxe esan diot lanean ari den taldeko ofizialor- deari. Sartu kalekxan daukagun guztiare- kin, herrikoan sartu, hartu egoera kontrol- pean eta erasotzaileak izan daitezkeenak kontrolatu edo bota, eta posizio guztia hartu. Orduan egongo da kontrolatuta egoera". Iñigo Cabacasen heriotzaren errudunek erantzukizunak onartuko al di- tuzte?

V › Vaticano: Joseph Ratzingerrek -Benedicto XVI- Eliza Katolikoaren buru gisa zituen ardurei uko egin zien otsailaren 28an. Handik gutxira aita santu berria au- keratzeko egindako konklabean Jorge Mario Bergoglio -Francisco I- jesuita au- keratu zuten aita santu gisa. Denborak esango du zein jarrera eta norabide har- tzen dituen Eliza Katolikoaren buruzagi- tzak Bergoglioren agintaldian.

X › X: Martxoan 20 Ameriketako Estatu Batuetako armadak Irak inbaditu zueneko X. urtemuga bete zen. Gezurretan oinarri- tutako inbasio militar honek utzi duen bal- antzea ezin ezkorragoa da. Begi-bistako- ak dira bere ondorioak. Eta begi-bistakoa da ere giza-hondamendi basati eta bide- gabe horren errudunak libre daudela, aske, inolako zigor edo epaiketarik gabe.

Z › Zipre: Europako herrialdeen politi- kak diktatzen dituen troiak -Europako Batzordea, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Moneta Funtsa- "akordioa" lortu zuen Zipreko gobernuarekin herrial- dearen finantza-sistemaren "erreskatera- ko". Akordio horren haritik herritarrek hainbat egunez arazoak izan zituzten ku- txazainetatik dirua ateratzeko, kapitalen mugimenduak mugatu egin baitzituzten bankuek. 10.000 milioi euroko erreskatear- ren truke, tasa bat ezarri beharko du Zi- prek. Hala, kontuetan 100.000 eurotik gora dituzten aurrezleei % 10 atxikiko zaie, eta % 6,75 gainontzekoei. Zipreko Euro- par Batasunaren baitan eman den lehen 'korraltioa' izan da. Azkena ote?

30 de mayo, huelga general

» N.I.

Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, Hiru y CNT, junto a decenas de organizaciones sociales, han convocado huelga general para el próximo 30 de mayo bajo el lema de "Eskubide sozial eta laboral duinak. Por un modelo propio en Euskal Herria". El objetivo de esta nueva huelga general -la sexta en cuatro años- es la defensa de los derechos sociales, laborales y la democracia. Asimismo, se ha remitido una carta a CCOO y UGT de Euskadi con el fin de poner en su conocimiento la iniciativa de la huelga para coincidir en la misma.

De la indignación a la movilización. En la convocatoria conjunta de la huelga del 30m, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki, fue contundente al afirmar que "la movilización es la única esperanza de los perdedores: hay que salir a la calle y decir ¡basta ya! de políticas antisociales y de recortes". "Los gobiernos -explicó- están destruyendo todos los derechos laborales y sociales: empleo, salarios, pensiones, prestaciones sociales...; elaboran presupuestos antisociales, aplican una fiscalidad injusta...; la propia democracia está cuestionada: sólo nos dejan elegir a quienes van a aplicar los recortes". "En ese

contexto, -continuó-, el poder económico quiere tener todo bajo control, y quienes aplican los recortes pretenden que les acompañe la paz social".

Así las cosas, Txiki insistió en el valor de la lucha y la movilización como única vía para poner fin al saqueo que estamos sufriendo. "La movilización sirve. Los derechos que tenemos no nos los ha regalado nadie: son consecuencia de luchas sociales y colectivas. La huelga general permite, además, polarizar la participación y la presentación de alternativas", desgranó, para insistir, a continuación, en la importancia de hacer llegar a la sociedad la idea de que hay alternativa, que se pueden hacer otras políticas, que se le puede dar la vuelta a la situación actual. "Vamos a una huelga general otra vez porque somos los ciudadanos/as los que tenemos que forzar el cambio de las políticas, que no va a venir fletando autobuses a la Virgen de Lourdes sino porque los gobiernos sientan la presión social en el cogote", afirmó.

Txiki reiteró su llamamiento a la movilización social. "Hacemos un llamamiento al conjunto de la clase trabajadora, a la gente que lo está pasando mal, a toda la sociedad que, de manera directa e indirecta, estamos sufriendo las consecuencias de las políticas antisociales y los

recortes a que salga a la calle y participe activamente en la huelga general".

Futura carta social. El secretario general de ELA destacó, finalmente, que la huelga general del 30m, además de servir de altavoz de las verdaderas demandas de esta sociedad, va a suponer un paso más en un proceso de debate y movilización para trabajar una Carta Social que sea la base de la actuación de los movimientos sociales y sindicales, y de la que pueda salir una ILP, tanto en Nafarroa como en la CAPV. "La huelga del 30m no cierra nada -concluyó-, es un paso más, y hay que seguir haciendo camino por la Euskal Herria que queremos".

Greba orokorra ezinbestekoa da, "nahikoa da!" ozen eta indarrez oihukatzen gobernu ezberdinetatik datozen eraso guztien aurrean eta, horrekin batera, alternatiba eraikitzen prozesu horri hauspoa emateko bultzada



DOCUMENTO CONJUNTO

HACIA LA CARTA DE DERECHOS SOCIALES DE EUSKAL HERRIA.

¡30 DE MAYO, HUELGA GENERAL!

Año tras año, las decisiones de los gobiernos siguen profundizando la crisis económica. Reformas constitucionales, decretazos, leyes básicas, recortes y reformas sólo están sirviendo para que los más ricos tengan cada vez más poder y dinero a costa del empobrecimiento generalizado de las trabajadoras y trabajadores, el desempleo masivo, la pérdida de derechos y la reducción de los servicios públicos. Estas medidas, además, se están llevando adelante de una forma antidemocrática, vía imposición, dado que es la única manera de que esos ataques contra la población sean posibles.

Por estas razones, reivindicamos un cambio radical de las prioridades de las políticas públicas e instamos a las actuales instituciones de Euskal Herria a tomar cuantas iniciativas institucionales, políticas y legislativas sean necesarias para conseguirlo.

Exijimos a dichas instituciones no aplicar las medidas impuestas desde el Estado, no aceptar los límites del déficit público y tomar la iniciativa para conseguir que cuantas personas viven y trabajan en Euskal Herria puedan acceder a unas condiciones de vida dignas, a través de un empleo digno, unos servicios públicos universales de calidad y unas prestaciones sociales adecuadas, como la mejor estrategia de salida de la crisis. Un nuevo sistema cuyo eje sea la igualdad de oportunidades para todas las personas y que elimine la actual dicotomía entre el trabajo productivo y reproductivo.

Las organizaciones sindicales y sociales presentes denunciaremos todo esto, y llevamos desde el comienzo de la crisis luchando en contra de ello. No obstante, junto con esta denuncia y lucha necesarias queremos ir más allá, queremos ofrecer a la sociedad vasca una alternativa. Pasar de la reivindicación de que otro modelo es posible a la construcción de ese modelo.

Es por ello que hemos decidido impulsar un proceso social, un proceso de construcción de esa alternativa cuyo primer paso será la elaboración de la Carta de Derechos sociales de Euskal Herria.

Queremos que sea un instrumento no sólo de reivindicación, sino un primer paso para aunar las fuerzas de toda la sociedad vasca y las luchas que llevamos a cabo en torno a unos objetivos claros que vayan conformando el camino que, tenemos la plena convicción, nos llevará a un modelo propio para Euskal Herria basado en el respeto de los derechos sociales y laborales y en la justicia social.

La huelga general que convocamos para el día 30 de mayo es necesaria, es indispensable, es un "iya basta!" alto, enérgico y firme ante todos los ataques a nuestros derechos que provienen de los distintos gobiernos, y es un impulso a este proceso de construcción de la alternativa.



Pentsioak kolokan!

ELAK ESKATU DU PENTSIONEN ERREFORMA BERRIA
BEREHALA ERRETIRATZEKO

› J. JAYO



Mikel Noval

Murrizketa izugarria, gizarte osoa eraginpean". "Erasoa enpleguari". "Are estuago lotu dituzte lan-eskubideak eta negoziazio kolektiboa".

Horrela deitu dio ELAk Rajoyren Gobernuaren pentsioei buruzko dekretuari, martxoaren 15ean onetsi zuten dekretuari. Beste pauso bat izan da —eta beste batzuk etorriko dira— pentsioen sistema publikoa desmuntatzeko bidean. Horren ondorioz jendea, oro har, pobretuko da; eta gizarte-desberdintasunak areagotuko dira. Horregatik guztiagatik, ELAk eskatu du errege lege dekretu hori indargabetzeko, alderdi politikoei parlamentuan kontrako botoa emateko, eta lan- eta gizarte-eskubideetan eragina duten legeak Hego Euskal Heritik erabakitzeko. Gizarte Politikaren arduradun Mikel Novalak pentsioen erreforma berriaren alderdi nagusiak erakutsi dizkigu.

-Zer irakurketa politikoa egin diezu Rajoyren gobernuak egindako murrizketa berriei?

-Lehenengo eta behin, nabarmendu nahi dut hautatu duten bidea: hilabete-tan zunda-globoak jaurtitzeko ibili ondoren, Gobernu espainiarrak errege lege dekretuaren prozedura antidemokratikoa erabili du berriro pentsioak murrizteko, negoziazio kolektiboa enpresarienean alde are gehiago lerratzeko, eta epe laburrera murrizketa gehiago egingo dutela iragartzeko.

Martxoaren 15ean onetsitako erabakiak borondate politiko jakin baten isla izan dira.

Asmoa ez da besterik aberastasunaren banaketatik kapitalak gero eta zati handiagoa eramatea baino. Horretarako, herritarrok oro har pobretuko dira, eta gizarte-desberdintasunak areagotuko. Neurri horiek, beraz, erabat onartezinak



dira; eta guk berehala erretiratzeko eskatzen dugu.

-Deigarria da gazteentzako enplegu-plana aurkeztu eta hiru egun beranduago, pentsioen erreforma horren ondorioz, langileak urte gehiagotan lan egin behar izatera behartzea —erretiro-pensio duina jaso nahi badute behintzat—.

-Gobernuaren egintzak gobernuaren izaeraren isla dira. Argi dago plan horren lehentasuna ez dela kalitatezko enplegua sortzea. Europako langabeziaren batez bestekoaren aldean (%10,7), Hego Euskal Herrian %17 edukita, eta Estatu Espainolean %26, nekez onartu daiteke pentsioaren %50 kobratzea eta lanean jarraitu ahal izatea, zeren argi eta garbi gazterien enpleguaren kaltetan doa. Hori ez da zahartze aktiboa, gazte jendea lanik gabe egotera kondenatzea baizik.

Politika hori pentsio apalen eta lan prekarioen filosofia baten emaitza da. Adineko jendea nolabaiteko duintasunaz bizi ahal izango da, osasunak

El desmantelamiento del sistema público de pensiones supondrá un empobrecimiento generalizado de la población y un incremento de las desigualdades sociales

dirauen artean. Osterantzean, pobrezia eta lazeria. Bistan da politika publikoak noren zerbitzura dauden: banka handia, finantza-taldeak eta patronala.

-Zein dira argudio nagusiak pentsioen erreforma berriaren aurka?

-Lehenik, garaiz aurretik eta modu partzialean egiten diren erretiroen portzentajea gero eta txikiagoa da, hala erakusten datu ofizialek, eta hala aldarrikatu behar da, zeren badirudi Gobernuak kontrakoa adierazi nahi duela. Gainera, erretirora iristeko batez besteko adina gero eta handiagoa da. Beraz, erretiro aurreratua eta erretiro partziala murrizteak eta eragozteak kalte egiten die langile-kidego batzuei, lanpostua galtzera beharturik baitaude.

Bigarrenik, 55 urtetik gorako pertsonak sorospenik gabe uztea ez da gizalage.

Ezin dugu ahantzi, bestalde, azken erreforma hori beste pauso bat izan dela sistema publikotik pribatura doan bidean. Eredu hori Europako beste herrialde batzuetan abiarazi zuten orain direla urteak, eta sekulako porrota izan du.

-Pentsioen murrizketak arrazoitzeko argudioetako bat sistemaren bideragarritasuna ziurtatzea izan da. Zer esan dezakegu?

-Gizarte Segurantzaren kontuak gastuak murriztuz edo, bestela, diru-sarrerak ugalduz orekatu daitezke. Bistan denez oraingo gobernuak, aurrekoek bezalaxe, ez ditu aztertu nahi diru-sarrera txikiagoen arrazoiak: soldata apalak, eroste-ahalmenaren galera, edo langabeziaren igogera. Gainera, pentsioen finantza-iturri bakarra gizarte-kotizazioak izan behar direla dioen ideia alde batera utzi behar ko zen.

-Eta testuingurua halakoa izanik ere, zenbait erakundek gizarte-elkarrizketaren alde egiten jarraitzen dute...

-Bozkario kapitalistaren testuinguru honetan gizarte-elkarrizketari sostengua ematea patetikoa da, eta agerian uzten ditu sindikatu aldelezen antolamendu- eta aurrekontu-gabeziak. Apustu horrek babesa eman zion 2011ko pentsio-erreformari; Hego Euskal Herrian, ostera, greba orokorra egin genuen haren aurka.

-Pentsioen dekretu horren gainean esandako guztia nahikoa ez balitz, Gobernuak bide batez nahitaezko arbitrajea ezarri du, hitzarmen kolektiboak aplikatu gabe utzi ahal izateko.

-Dekretutzar horretaz baliatu dira hitzarmen kolektiboa aplikatu nahi ez duten

enpresei erraztasunak emateko, nahi-taezko arbitrajearen bitartez; eta hori albiste ezin txarragoa da euskal langile-riarentzat. Neurri hori aspalditik eskatu izan dute enpresariak, soldatak eraisteko, eta Administrazioak azkenean amore eman du.

Alde horretatik, dei egiten diegu EAEko eta Nafarroako gobernuei gure autonomiaren alde agertzeko, eta nahi-taezko arbitraje hori gure esparruan gauzatzetik izan ez dezan neurriak hartzeko.

Dicta estos recortes un partido político inmerso en la corrupción, por lo que la legitimidad de sus decisiones es nula

Lan-erreforma zorrotzago honekin inoiz baino ageriago geratu da sindika-

tuak enpresan jardun behar duela, jendea gatazkarako prestatuz eta antolatuz.

Haiek ez dute mugarik. Edo geldiarazten ditugu, edo hain kostata lortutako guztia kenduko digute. Esan behar dugu, azkenik, murrizketak ezartzen ari den alderdi politikoa usteldura-kasuetan murgildurik dagoela, eta oraingoz ez dutela erantzukizun bat bera ere garbitu. Ez dute batere zilegitasunik, beraz, hartzen ari diren erabakiak hartzeko.

Consecuencias de la nueva reforma de las pensiones

1.- Posibilidad de compatibilizar el cobro de la pensión de jubilación y el trabajo.

Quienes trabajen en el sector privado podrán compatibilizar el cobro del 50% de la pensión con el trabajo.

2.- Reducción de la pensión en los supuestos de jubilación anticipada.

La cuantía sufre un doble castigo ya que, además de aplicar los coeficientes reductores establecidos, se impone un segundo porcentaje que hace que la pensión sea todavía menor.

3.- Incremento de la edad y de los años cotizados para acceder a la jubilación anticipada.

Se aumenta la edad de acceso a la jubilación anticipada, se incrementa el período mínimo de cotización exigido y se aumentan, en general, los coeficientes reductores de la cuantía de la pensión:

- En la actualidad se puede acceder a la jubilación anticipada con 61 años si existen causas no voluntarias, y 63 si la extinción es voluntaria. La reforma establece que en el caso de las causas no voluntarias el adelanto máximo respecto a la edad legal sea de 4 años, y de sólo dos para el caso de la extinción voluntaria. En la medida en que la edad de jubilación sea de 67 años esto supone que se podrá acceder a la jubilación anticipada con 63 ó con 65 años, según sea el caso señalado, dos años más que ahora.

- En el caso del cese voluntario el periodo mínimo de cotización exigido pasa de 33 a 35 años.
- Aumentan, también, los coeficientes reductores.

4.- Jubilación parcial (contrato de relevo):

- Se aumenta el periodo mínimo de cotización exigido. De 30 años pasa a 33.
- Se aumenta, también, la edad de acceso: Actualmente es posible jubilarse parcialmente desde los 61 años. A partir de ahora, y de manera progresiva, con 33 años de cotización se podrá acceder al contrato de relevo con 65 años. Se podrá acceder a los 63 años si se ha cotizado 36 años y 6 meses.
- Se amplía la jornada laboral a realizar por el jubilado parcial. El mínimo pasa del 15% actual al 25%.
- La cotización por el trabajador/a relevado será por el 100% de la jornada, con independencia del porcentaje de reducción de jornada que tenga.

5.- Creación de un Comité de Expertos sobre el Factor de Sostenibilidad.

El gobierno creará un Comité de expertos independientes a fin de que elabore un Informe sobre el factor de sostenibilidad del sistema de Seguridad Social para su remisión a la

Comisión del Pacto de Toledo. Este factor será la excusa esgrimida para futuros recortes "automáticos" de las pensiones.

6 - Subsidio de desempleo para mayores de 55 años.

Hasta ahora las personas mayores de 55 años que agotaban la prestación o el subsidio por desempleo tenían derecho a acceder al subsidio por desempleo para mayores de 55 años si no tenían ingresos superiores al 75% del SMI (excluidas las pagas extras), además de cumplir otros requisitos.

A partir de ahora, el gobierno de Rajoy excluye de este subsidio a aquellas personas que pertenezcan a una unidad de convivencia cuyos ingresos prorrateados superen per cápita el 75% del SMI (excluidas las pagas extras, lo que equivale a 484 euros en doce mensualidades). Se pasa, por tanto, de tener en cuenta los ingresos de la persona mayor de 55 años, a todos los ingresos de la unidad de convivencia.

7.- Despidos colectivos que afecten a trabajadores/as mayores de 50 años.

En los despidos colectivos en los que el porcentaje de trabajadores/as mayores de 50 años supere el porcentaje que representa este colectivo en el conjunto de la plantilla, las empresas de más de 100 trabajadores/as tendrán que hacer una aportación económica para financiar las prestaciones de estos trabajadores/as. Esto ocurrirá si las empresas o el grupo de empresas al que pertenece:

- Ha tenido beneficio en los dos años anteriores a iniciar el procedimiento.
- Tiene beneficio durante dos años consecutivos en los cuatro años siguientes a iniciar el procedimiento.

8.- Actuación de la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos.

Si en el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor de este Real-Decreto las Comunidades Autónomas no hubieran constituido un órgano tripartito equivalente a la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos o suscrito un Convenio de colaboración con el Ministerio de Empleo y Seguridad Social acordando la actuación de la Comisión Nacional en la correspondiente Comunidad Autónoma, la Comisión Nacional podrá resolver las peticiones de inaplicación de los convenios en el caso de las empresas que estén situadas en una sola Comunidad Autónoma. Hasta ahora, la Comisión Nacional tenía facultad de decidir sobre las peticiones de inaplicación en el caso de las empresas establecidas en más de una Comunidad Autónoma.

La patronal ha estado presionando para que el Gobierno Vasco o el Gobierno de Navarra creasen una Comisión análoga para que las empresas que están en una única Comunidad Autónoma pudiesen llegar a exigir un arbitraje obligatorio para no aplicar los convenios.

Ondo egindako lanaren emaitza

BEASAINGO INDAR ENPRESAKO LANGILEEK LAN
BALDINTZEN HOBEKUNTZA NABARMENA JASOTZEN
DUEN LAN-HITZARMENA SINATU BERRI DUTE



› G. QUEVEDO

Pozik ageri dira Aitor Agirre eta Irma Muruamendiaraz otsailean Beasaingo Indarren sinatu zen lan-hitzarmenaren kin.

Akordioa ondo egindako lan sindikalaren ondorio da. Hitzarmenak makina bat aldiz aipatu dugun hori frogatzen du: soilik afiliazioa, dinamika sindikal indartsua eta mobilizazioa dauden tokietan da posible akordio onak lortzea.

2013ko otsaileko akordioaz hitz egite-rakoan denboran atzera egin behar dela aipatzen dute Aitorrek eta Irmak. "2008an Indarrekin kalte garrantzitsuak eragin zizkion sutea izan zuen. Horri buelta eman zitzaionean ekonomiaren abagune berriak eragindako lehen ondorioei aurre egin behar izan zitzairen. Egia esan garai hartan, aurreko esperientziak ikusita, pentsatu zen krisiaren ondorioak pare bat urtetakoak izango

La afiliación y un gran trabajo sindical han sido las claves para este convenio, que frena la reforma laboral y supone grandes mejoras para las y los trabajadores de Indar

zirela asko jota, ez zen pentsatzen horren luzea izango zenik. Gauzak honela 2010. urtean erregulazio espediente baten pean egon ginen, enpresaren sekzioaren arabera urte erditik urtebeterako iraupena izan zuena".

Egoera hori dela-eta 2010ean amaitu zen hitzarmena negoziatu ezinik egon ziren. "Hau izan zen bere garaian hitzarmena ez negoziatzearen arrazoia, beste 'marroi' batzuk genituelako. 2011. urtean ezin izan ginen hitzarmena negoziatzen hasi, enpresak iragarritako 145 kaleratze saihestu ahal izateko plan alternatibo baten negoziatioari ekin behar izan geniolako".

Hilabete horietan lan ugari egin behar izan zuten ELAko ordezkariak, abagunak eragiten zituen arazoez gain hitzarmen berria prestatzeari ere ekin behar izan ziotelako. "2012ko irailean hasi ginen negoziatioekin. Lehenengo erronka 2010etik geldirik genuena errekupe-ratzea izan zen. Enpresaren asmoa oso bestelakoa zen: 2010-11 urteetarako soldaten izoztea eta 2012ko iguera salmenten araberakoa izatea. Guk argi utzi genien ez genuela horrelakorik onartzen, erreferentzia Kontsumorako Prezioen Indizea zela. Hitzarmenaren amaieran -2015eko abenduaren 31- soldatetan KPlaren gainetik egongo gara".

ELAko ordezkariak argi zuten hasieratik helburu nagusiak lan-erreformari aurre egitea eta eros-ahalmena ez galtzea zirela. "Abiapuntua zen hitzarmena

bazegoela, 35 orduko lan-astea jasotzen zuena. Lehenasuna, beraz, erreformaren aurkako puntuak sartzea izan zen, erreforma gelditzea: ultraaktibitatea, mota guztietako blindajeak, Aldi Baterako ezintasunen inguruko neurriak, enplegua bermatzeko klausulak, erretiroaren ingurukoak, iraunaldiak, ezintasunak dituzten senideen inguruko puntuak... Agerikoa da akordioa oso ona dela eta erreforma gelditzea lortu dugula".

Akordioa 2013ko otsailaren 20an berretsi zuen Indarreko asanbladak, gehiengo oso zabalaz. "Komitean ELA da lehen indarra; gehiengo dugu bai botoetan, bai delegatuetan. Hala ere nabarmendu beharra dago Indarren ez dela inoiz gehiengoaz baliatu gauzak aurrera ateratzeko, ez da horren abusua egin. Akordioetara heltzen saiatzen gara. Eta zalantzak baldin badaude asanblada orokorrera jotzen da".

Sindikazioaren indarra. Aitorrek eta Irmak afiliazioaren garrantzia azpimarratzen dute. "ELAk afiliazio handia du Indarren, langile guztien %30 baina gehiago gure afiliatuak dira. Gainera gure egitura ondo antolatuta dago, afiliazioa oso aktiboa da. Afiliatuek uneoro babestu gaituzte, eta hori da garrantzitsuena. Azorez bat edo erabaki garrantzitsuren bat hartu behar den bakoitzean asanblada eta bilerak egiteko ohitura dugu. Atal sindikalean hitz egin eta eztabaidatzen dugun guztia afiliatuen asanbladetara zabaltzen dugu, eta bertan egiten da gogoeta nagusia. Ezinezkoa da guretzako urrats bat ematea lehenago afiliatuen oniritzia eta babesa ez badugu. Eta bertan erabakitzen duguna da ondoren asanblada orokorrera eramaten duguna".

Afiliazioaz gain, antolakuntza egokia izatearen garrantziak ohartarazten dute. "Atal sindikaleko lagunak ia egunero gaude harremanetan, eta aldiro-aldiro bilera formalak egiten ditugu. Guk oso argi daukagu delegatuak bagara langileek hala nahi izan dutelako dela, hala bozkatu dutelako. Baina horrek ez du esan nahi hartzen ditugun erabaki guztiak zuzenak direnik. Gu ere erratu gaitzek, eta horregatik ezinbestekoa da edozein erabakiren aurrean asanblada bat antolatu eta gure afiliatuen iritzia jakitea".

"Indar, Indar da", esaten dute barrez, Vujadin Boskov futbol entrenatzaile serbiarrak ezagun egin zuen esaldiari jarraituz -"Futbola futbola da, eta gola gola da". Zorionak!

Defendiendo Sunsundegi

LOS RESPONSABLES DE ELA EN SUNSUNDEGI DESTACAN QUE SEGUIRÁN LUCHANDO POR ESTE PROYECTO INDUSTRIAL VITAL PARA LA SAKANA, PESE A LAS AMENAZAS Y CHANTAJES DE UPN Y UGT



De izquierda a derecha Jokin Arbea, Alberto Dueñas, José Gasco, Alberto Gómez y Kike Aldasoro, responsables de ELA en Sunsundegi

› GORKA QUEVEDO

Basta estar unos minutos con los responsables de ELA en Sunsundegi –empresa situada en Altsasu y dedicada a la carrocería de autobuses– para comprobar todo lo que han sufrido estos últimos meses. Un doble sufrimiento: el que supone luchar por la viabilidad de un proyecto que es vital para una comarca tan castigada como la Sakana, y el tener que padecer continuas y reiteradas amenazas, chantajes y coacciones por parte de la dirección de la empresa, el Gobierno de Navarra –UPN– y el sindicato cómplice para que eso suceda –UGT–.

Resumámoslo. El año 2009 la dirección de Sunsundegi cedió al Gobierno de Navarra la dirección de la empresa. En octubre del 2011 el Gobierno ejecutó una opción firmada dos años antes, al decidir comprar a través de la sociedad pública Sodena la empresa por un precio simbólico. Ahora, con el único objetivo de garantizar la salida de Sodena de la empresa, el Gobierno de Navarra –con la inestimable ayuda de UGT– ha decidido tomar como rehenes a las y los trabajadores de Sunsundegi.

Jokin Arbea –responsable del Metal en Navarra– y los responsables de ELA en Sunsundegi denuncian la nefasta gestión del Gobierno de Navarra y, en especial, de la de la Consejera de Industria, Lourdes Goicoechea. “La gestión de Sodena ha sido un rotundo fracaso. Tras dos años de gestión no han sido capaces ni de mejorar la situación ni de encontrar un socio

Sunsundegiren proiektuak badu etorkizunik. Horregatik ELA n xantaiei aurre egin eta horren alde borrokatzen jarraituko dugu

industrial. Ahora, en lugar de reconocer que no han cumplido ninguno de los compromisos adquiridos, han obligado a la plantilla a aceptar un acuerdo por el que el Gobierno Foral sale del accionariado. De este modo, una sociedad formada en un 51% por la dirección y un 49% por las y los trabajadores dirigirá la nueva sociedad en ausencia del socio industrial que contemplaba dicho plan. Se abre un periodo de incertidumbre, en el que más allá de saber que por ahora no se cierra la empresa no sabemos qué nos deparará el futuro”.

Sakanarentzat funtsezkoa den proiektu hau desagertzen bada zuzendaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta UGTren erruz izango da

UPN y UGT, de la mano. Para lograr ese objetivo UPN ha tenido la fiel ayuda del sindicato UGT. Los delegados de ELA en Sunsundegi no se cortan al hablar del auténtico calvario que han tenido que sufrir. “Han cruzado todas las líneas rojas de la decencia: mentiras, amenazas, chantajes... Todo lo que podemos decir es poco. Utilizando de manera vergonzosa la tremenda tasa de desempleo de Navarra, en general, y de la Sakana, en particular, han obligado a aceptar un plan de viabilidad. Su mensaje ha sido claro: o aceptáis esto o se cierra la empresa. Es por ello que únicamente un delegado de ELA refrendará el acuerdo, dando validez a la decisión de la asamblea. Ha sido el único modo para evitar que el Gobierno de Navarra, apoyándose en la situación de ‘bloqueo’, anunciara el cierre de Sunsundegi y nos culpara a ELA y LAB de ello”.

Aunque reconocen que la situación no es fácil destacan que nuestro sindicato seguirá apostando por un proyecto industrial clave para la comarca. “Aquí no sobra nadie. Esta nueva página triste que están escribiendo UPN y UGT supondrá alrededor de 50 despidos que se podrían haber evitado. Es muy duro decirlo así, pero a UGT le interesan esos despidos. Saben que los despedidos serán gente de ELA y LAB, y que luego ellos podrán meter a 50 suyos mediante eventuales y otros medios. Es un tipo de limpieza étnica sindical”.

La gente de ELA en Sunsundegi seguirá luchando, como lo ha hecho hasta ahora, por un proyecto que es viable y vital para la Sakana. “Tenemos claro que si se apuesta por una empresa matriz potente el proyecto es viable. El futuro no puede ser seguir exprimiendo a las y los trabajadores para seguir bajando costos salariales, que de por sí ya son bajos. Hay que invertir para modernizarse. Investigación y desarrollo. Con voluntad política y una buena gestión es un proyecto con futuro. Desgraciadamente, todo esto está en las antípodas de lo que ha realizado el Gobierno”.

“El objetivo de la dirección –añaden– ha sido quedarse con la empresa gratis o prácticamente gratis, y en una situación en la que pueda controlarla –%51 del accionariado–. Trabajo hay. Y eso lo demuestra que la dirección subcontrate trabajos que los podríamos hacer la gente de plantilla dentro de la misma fábrica. También hay auditorías externas que confirman la viabilidad. En ELA tenemos claro que si se invierte en este proyecto es posible, y eso es lo que le hemos traslado siempre al Gobierno de Navarra. Otra cosa es que nos hagan caso. Por ello, aunque hayan abandonado su participación, le exigimos que si realmente pretenden ayudar a una comarca como la Sakana busquen un socio industrial que invierta y haga de ésta una empresa puntera en el sector”.



MAIATZAREN LEHENEAN, ZATOZ BILBORA!



› GORKA QUEVEDO

Joseba: Euskal Herrian lan eta bizi denez euskal langileei eragiten dizkiguten politikak Euskal Herrian erabakitzea exijitzen du. Irakaskuntza publikoko langilea da, eta ondo baino hobeto daki Madrilek inposatzen dituen erabakietatik ezin dela ezer onik espero. Euskal esparruaren alde, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Irati: Kapitalaren mesedetan agindu duen klase-politikoak hartutako neurriek ekarri gaituzte honaino. Iratik jakin badaki erabaki gehienak herritarren bizkar hartzen direla, gardentasu-

nik gabe, argi gutxi eta dirugose asko dagoen gela ilunetan. Sufritzen dugun demokraziaren kalitate eskasaz nazkatuta dago. Benetako demokrazia baten alde, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Ramon: 17 urte zituelarik altzarugintza sektorean egin du lan. Duela hiru urte kalera bota zuten lantokitik; mundu mailan ezaguna den Alemaniako multinazional bat, hain justu. Lanik ez zegoela argudiatu zioten, enpresak urtez-urte irabazi itzelak izan dituen arren. Multinazionalak, orain, Ramonekin batera bota zituen 22 langileak ordezkatzeko beste horrenbeste lagun hartu ditu diru-publikoz lagundutako kontratuei esker. Langile horiek sei hilabetez egongo dira, miseria baten truke. Ondoren kalera botako dituzte, berriz ere beste horrenbeste langile kontratatze-ko miseriarako baldintza berdinetan. Enpleguaren alde, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Veronica: Bere bigarren alaba jaio berri da. Amatasun baimena aurki amaituko zaio, eta oso kezkatuta dago. Murrizketen ondorioz gero eta zailagoa da haur-eskola publikoan izena ematea. Dirurik ez dagoela entzuten dio behin eta berriro Lehendakariari. "Gezurra!", erantzuten du Veronicak. Presio fiskala Europar Batasuneko batez-bestekoaren parekidea balitz milaka milioi gehiago bilduko lirateke. Zerga-sistema justu baten alde, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Arantxa: Urruti ikusten du erretiroa hartzeko garaia. Eta, zoritxarrez, egu-

nez egun urrutiago ikusten du. Kapitalak pentsio-sistemaren pribatizazioaren atzean izugarriko negozioa dagoela ikusi du. Horregatik suntsitu nahi dute pentsio sistema publikoa. Arantxa jakitun da pentsio sistema publikoa mantentzea ezinbestekoa dela bere eta ondorengo belaunaldiek bizi-baldintza duinak izan nahi badiuzte. Pentsio duinen alde, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Imanol: Haur-koskorra zenean pobrezia Afrikako ume gosetiekin lotzen zuen. Orain jakin badaki Afrikan pobrezia izugarria dagoela, baina errealitate hori ere gero eta zabalagoa dela Euskal Herrian. Milaka dira gurean gorriak eta bi bizitzen ari diren familiak, pobrezia mugaren azpitik bizi direnak. Horren guztiaren aurka borrokatzen du Imanolek. Pobrezia kontratu, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Saioa: Langile jendearen eros-ahalmena jasaten ari den galera izugarria da. Saioak ondo baino hobeto daki horren berri. Bere enpresan delegatua da, eta lan-hitzarmena berritzeko borrokan dago. Askok dira beharrak, baina argi du zein den lehentasuna: soldatak. Ezinbestekoa da bidezko soldata baten alde borrokatzea azken urteetan jasaten ari garen hondamendiarekin amaitzeko. Soldata duinak defendatzeko, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!

Mirari: Ustelkeriaren inguruan irakurtzen, entzuten eta ikusten dituen albisteek bere samina handitu besterik ez dute egiten. Mirarik sistema bidegabe hau irauli nahi du, eta horretarako badaki ezinbestekoa dela ustelkeriarekin amaitzea. Bere ahotsa ozen entzun dadila nahi du. Ustelkeriaren kontra, Maiatzaren Lehenean, Bilbora!